

## KUDEAKETAKO BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK JASOTZEKO GALDETEGIA

**IZENBURUA:** BERDINTASUNAREN EREMUAN EGINDAKO IBILBIDEA AZALTZEN DUEN BIDEOA.

**HELBURUAK:** Azken urte hauetan Laboral Kutxak emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan egindako ibilbidea lankideei ezagutaraztea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eskaintzen dituen aukerak baliatuz.

**ENTITATE ARDURADUNA:** Nuria Agirre Unzueta

**Emakumezko langileen kopurua:** 1120 **Guztiraren gaineko portzentajea:** % 53

**Gizonezko langileen kopurua:** 985 **Guztiraren gaineko portzentajea:** % 47

**WEBGUNEA:** [www.laboralkutxa.com](http://www.laboralkutxa.com)

**PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK:** Alecop Group eta Elhuyar Aholkularitza

**HASIERA EGUNA:** 2019ko otsaila

**HARREMANETARAKO PERTSONA:** Arrate Arkauz Arenaza

**HARREMANETARAKO TELEFONOA:** 943719674

**HARREMANETARAKO E-MAILA:** [arrate.arcauz@laboralkutxa.com](mailto:arrate.arcauz@laboralkutxa.com)

**AZALPENA:** Azken hilabeteetan *Lidergo partekatu baterantz* egitasmoa ari gara garatzen; horrez gain, aurten Berdintasunerako IV. Plana diseinatuko dugu. Plana diseinatu aurretik, berdintasunaren ikuspegitik Entitatearen gaur egungo egoera zein den ezagutzeko diagnostikoa ari gara lantzen. Horretarako, informazio kuantitatiboa jasotzeaz gain, Laboral Kutxako berdintasun-egoeraren inguruan lankideek gaur egun duten pertzepzioa jasoko dugu galdetegi baten bitartez, euren iritziak, ikuspegiak nahiz gaiarekiko bizipenak bilduz. Baina Laboral Kutxako pertsonen iritziak eta ikuspegiak jasotzetik haratago, galdetegia sentsibilizatorako tresna izateko ahalegin berezia egin dugu, eta, horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz bideo bat sortu dugu *Scribing Video* formatua erabiliz, Laboral Kutxako pertsonen berdintasunaren arloan azken urteetan egindako ibilbidearen berri emateko.

### **EMAITZAK (edo inpaktu positiboak edo ondorio negatiboen murrizketa):**

Berdintasunerako kudeaketan jauzi kualitatiboa ekarri du *Scribing Video* formatua erabiliz sortu dugun bideo honek. Orain arte lankideei berdintasunaren eremuan egiten ari garen lanaren berri emateko beste erreminta batzuk erabili izan baditugu ere (berriak intranetean, berdintasuneko albisteak jasotzen dituen “Berdin” buletina, etab.), kasu honetan berariazko tresna diseinatu dugu, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ematen dizkigun aukerak baliatuz. Bideo erakargarri hau diseinatzeko egindako ahaleginak espero dugu eragin positiboa edukiko duela galdetegiaren betetze-mailan.

**ALDERDI BERRITZAILEAK:** informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eskaintzen dituen aukerak baliatuz eta *Scribing Video* formatua erabiliz sortu dugun bideo honetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan azken urteetan egin dugun ibilbidea jaso dugu, egindako ekimen esanguratsuenetako batzuen berri eman dugu eta lortutako aurrerapenak nabarmendu ditugu modu pedagogiko eta argian.

Izan ere, bideoaren kontakizunerako erabili dugun informazioa ahalik eta ulerterrazena izaten saiatu gara lankide guztiengana heltzeko, eta kontakizun hori irudi eta idatzizko testuekin aberastu dugu bideoan zehar ikuslearen arreta mantentzeko. Horrela, berdintasunaren eremuan azken urteetan egin ditugun ekimen esanguratsuenen bilduma egin dugu, ikus-entzunezko euskarrian.

Bideo honen bitartez, galdetegia bete duten pertsonei testuinguru bat eman diegu, gaian kokatzeko eta galdetegia betetzeko baliagarria izateko.

**ARRAKASTA-FAKTOREAK:** Arrakasta-faktore hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Hainbat erakunderen arteko elkarlanaren fruitua da bideoa: Laboral Kutxa, Alecop Group eta Elhuyar Aholkularitza.
- Zuzendaritzaren konpromisoa eta lidergoa, berdintasunean egindako lana era berritzailean komunikatzea erabaki izanagatik eta bideoa egiteko beharrezkoak diren baliabideak ezartzeagatik.
- Berdintasun Batzordeko partaideen parte-hartzea eta inplikazioa: bideoaren edukiak Berdintasun Batzordean aurkeztu eta kontrastatu dira; eta euren ekarpenek bideoa hobetzen eta aberasten lagundu digute.

**PARTAIDETZA:** Bideoaren diseinuan hainbat eragileetako pertsonak hartu dute parte: Laboral Kutxako berdintasuneko arduradunak nahiz koordinatzaileak; Berdintasun Batzordeko kideak; Alecop Group enpresako adituak; nahiz Elhuyar Aholkularitzako teknikariak. Guztira, 25 pertsona inguruk. Bideoa, beraz, etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik diseinatu dugu, eta, horretarako, partaidetza zabal hori funtsezko alderdia izan da.

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Berdintasun Batzordea (lehengoak eta berriak)	13	8	<b>21</b>
Alecop Group	1	2	<b>3</b>
Elhuyar Aholkularitza	3	0	<b>3</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>17</b>	<b>10</b>	<b>27</b>

**INTEGRATUA:** emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaia Erakundearen estrategiaren parte da. Berdintasunerako Plana Entitatearen Plan Estrategikoan zein urteko kudeaketa-planetan txertatua dago; eta urte hauetan guztietan zehar hainbat egitura sortu dira Plana aurrera eramateko: Planaren arduraduna (Gestio Sozialeko arduraduna ere badena), Planaren koordinatzailea, Berdintasun Batzordea, gaikako lantaldeak... Horrez gain, Laboral Kutxak Elhuyar Aholkularitzaren laguntza jasotzen du Plana garatzeko. Baliabide pertsonalak zein ekonomikoak ezartzen dira urtero Plana aurrera eraman ahal izateko.

2011z geroztik lan handia egiten ari da Erakundea berdintasunerako politikak bultzatzeko. Horren adierazgarri dira, esaterako, *Lidergo partekatu baterantz* egitasmoaren baitan azken hilabeteetan egin ditugun ekimenak: emakumeentzako Ahalduntze Eskola, lidergo-estiloaren genero-azterketa, emakumeen komunitatea, gizonentzako sentsibilizazio-tailerra, etab.

Dagoeneko Berdintasunerako hiru Plan garatu ditugu, eta iaz III. Planaren indarraldia bukatu eta gero, Plan hori ebaluatu dugu, eta orain IV. Plana diseinatzeko lanetan murgilduta gaude.

Berdintasunaren eremuan diseinatu dugun bideo honen formatua beste esparru batzuetako azterketetarako ere erabili izan dugu, adibidez, konpetentzia digitalei buruzko azterketa egiteko; eta esperientzia hori baliagarria izan zaigu bideo honetan hobekuntza-neurriak txertatzeko.

**TRANSFERIBILITATEA:** informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz diseinatu dugun bideoa berdintasun-egoeraren inguruan egindako lana ezagutarazi nahi duen edozein erakundeetara transferitu daitekeen tresna da. Bideoa Erakundeko partaideak berdintasunean sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko tresna baliagarria izan daitekeela uste dugu.

**BALIABIDEAK (pertsonek eta baliabide ekonomiko/finantzario eta materialak):** ekimen honetarako propio sortu den tresna izaki, berdintasuneko bideo hau egiteko beharrezko baliabide ekonomikoak ezarri ditugu, eta bereziki eragile hauen parte-hartzea nabarmendu nahi dugu:

- Berdintasuneko arduraduna eta koordinatzailearen lana
- Bideoaren diseinuaz arduratu den Alecop Group enpresaren lana
- Elhuyar Aholkularitzaren laguntza teknikoa
- Berdintasun Batzordeko partaideen inplikazioa

**JARDUNBIDEA EGIAZTATZEN DUEN MATERIALA:**

(Sharefile bidez atxikita)